

EREMUAK
30
EKO
SEGURUAK

Gasteizen bizikletaz ibiltzen bazara, jakizu badirela zeuretzat bereziki sortutako espazioak, segurtasunez eta erosotasunez zirkulatzetik izan dezazun: **30EKO EREMU** berriak.

SAIATU GALTZADATIK ZIRKULATZEN

30EKO EREMUETAN, atera zaitetz espaloitik, eta saia zaitetz oinezkoei enbarazu ez egiten.

Ohartuko zara **azkarrago** zoazela, **erosoago**, eta **arrisku txikiagoa** duzula, ez duzu topatuko atarrietatik ateratzen den jenderik edo garajeetatik ateratzen den autorik, eta bidegurutzetean auto-gidariak hobeto ikusiko zaituztenez nabarmen gutxituko da istripuak izateko arriskua.

** Ezin izango da bizikletaz ibili 3 metro baino estuago diren espaloietatik (hiri hornigarriak kontuan izan gabe), 14 urtetik beherakoak izan ezik.*

Oraindik zalantzarik baduzu, har ezazu parte ikastaro batean. Argibide gehiago nahi izanez gero deitu CEAr (945 162696)

30EKO EREMUAK
EREMU SEGURUAK

Hasi erabiltzen!

30EKO EREMUAN

⇒ Galtzadan bizikletentzako zirkulazio errei bereziak seinaleztatu dira. Kasu batzuetan txirridulariek bakarrik erabiltzeko dira; beste batzuetan, automobilekin partekatu beharko dituzte.

EZ ZARA SARKIN BAT, GALTZADA ZEUREA ERE BADA.

⇒ Autoek gehienez **30 km/h-ko** abiaduran zirkulatu ahaliko dute, eta aurretik bizikleta bat badute, **haren abiadurara egokitu beharko dute.**

ABIADURA MUGA (30 KM/H) ZAINTZEN EZ DUTEN AUTOMOBILEI ZIGORRA JARRIKO ZAIE.

EREMU SEGURUA

- ⇒ Kale hauek ez dira automobilen igarobideak.
- ⇒ Mantsoago zirkulatzeko dutenez, gidariak erreakzionatzeko denbora gehiago izango dute.
- ⇒ Guztiok dakigu espazio partekatuak direla eta automobilek eta bizikletek galtzadan elkarren ondoan joan behar dutela.

Nola irits zaitetzke helmugara
ESPALOIETATIK JOAN GABE?

Bizikletaz galtzadatik joateak orain arte erabiltzen genituen ibilbideen ordezkokoak bilatzera behartuko gaitu.

Gasteizko Udalak **ibilbideen planifikatzailea** eskaintzen dizu, zure helmugara iristeko bide seguruen aukera dezazun:

www.vitoria-gasteiz.org/geovitoriagasteiz/eu

